

Asisko gutuna

2021eko otsaila

4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin, anaitasunez bizi

148 zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Anaiarteko harremanak harremanaren egian oinarritzen dira. Baina harreman horren moduetan ere bai. Beraz, harremana egiazkoa izateko benetakotasuna beharrezkoa bada, hura bizitzea errazten duten moduak ere zaindu behar dira denboran irautea nahi badute.

Gogoetarako gaia

Adeitasunez trata nazazu, faborez

Ez gara bizi harremanetan kortesia baloratzen den garaietan. Gaur egun, eraginkortasuna da nagusi, modu zorrotzean hitz egiteko era, baxterez loraldirik gabekoa. Gure arteko tratatubidea zuzenean harira joanez egiten dugu. Horrela, ez gara formetan galtzen eta ez dugu estalkietan hainbeste energia galtzen, edukiari erreparatzen baitiogu. Ziur asko, ahalik eta ahaleginik txikienarekin ahalik eta emaitzarik handiena lortu nahi duen ekoizpen-bizimoduaren eraginpean gaude. Pixkanaka harreman modu hau giza harremanen beste esparru batzuetara zabaldu da.

Eta, hala ere, badira giza eremu batzuk, non eraginkortasuna bilatzen duen harreman mota hori ezinezkoa den, baizik eta doakotasuna, eskuzabaltasuna eskatzen den. Adibidez, senideen arteko harremanetan, familiakoetan, adiskideen artekoan, ez zaio onurari erreparatzen, tratuari berari baizik, harremana bera zainduko duen harremanari. Giza esparru horietan moduak,

formak, estalkiak bai laguntzen dutela muinera iristen eta lantzen.

Zein garrantzitsua den pertsonak gizalegez tratatzea, adeitasunez gabeko karitatea garrantza egiten baita. Anaiarteko harremanetan nolabaiteko arreta eta adeitasun minimoa ez izatea, harremanak izateko baldarkeria baten seinale da, edo, agian, anaiarekiko, arrebarekiko, nagusikeri eta mespretxuzko ekintza. Izan ere, gizalegea ez da apaingarri hutsa, maitasuna eta estimua lantzeko bide egokia baizik.

Adeitasuna, harreman barroko eta gogaikarria ez dena, lubrifikatzailea bezalakoa da, giza harremanak errazten dituen eta desberdintasunak hobeto eramaten laguntzen dituen, anaidiaren eremuan integrazio handiagoa lortzeko. Are gehiago; agian gai labainkorrenak ere naturaltasun handiagoz jorratu daitezke. Anaia, arreba, joka dezagun adeitasunez.

Bibliako pasarteak: 1 Tes 5,12-16

Senideok, elkarte-buru dituzueinei, zuen artean hainbeste lan egin eta zentzarazten zaituztetenei, begiramena izateko eskatzen dizuegu Jaunaren izenean. Adierazi beraiei onspen eta maitasunik handiena, egiten dutenarengatik. Bizi bakean elkarrekin. Otoi, senideok: zentzarazi zabar dabil-tzanak, eman adore bihozgabetuei, eutsi ahulei, izan eroapen guztiekin. Ez itzuli inori gaitzik gaitz orde eta saia zaitezte beti elkarri eta denei ongi egiten. Zaudete beti pozik

Frantziskotar espiritualtasuna

Beste batean, Frantzisko dohatsua leku hartan bertan zela, bazen han oso espirituala eta Ordenan zaharrenetakoa zen anaia bat, oso gaixo eta ahul zegoena. Egoera hartan ikusiz, Frantzisko harenganako gupidaz bete zen. Baina garai hartan anaiek, osasuntsuek zein gaixoek, pozik eta pazientziaz pobretasuna oparotasuna balitz bezala hartzen zuten eta beren gaixoa dietan ez zuten sendagairik erabiltzen, ez eta eskatzen ere; aitzitik, gorputzarentzat kaltegarri zirenak gogotsu egiten zituzten. Horregatik, honela esan zuen Frantziskok berekiko: «Anaia honek goizean goiz mahats heldua jango balu, on egingo liokeela uste dut». Eta hala, egun batean, goizean goiz isilean jaiki, anaia hura deitu eta elizaren ondoan zegoen mahastira eraman zuen. Aukeratu zuen mahats-mordo eder eta helduak zituen mahatsondo bat eta, honen ondoan anaiarekin eseriz, mahats-aleak jaten hasi zen, hura bakarrik jaten lotsa ez zedin. Eta jaten ari ziren bitartean, Jauna goretzi zuen anaia hark. Eta gero, bizi izan zen bitarte guztian, debozio handiz eta malko ugariz sarritan gogoratu zuen anaien artean Frantzisko santuak azaldu zion errukia. (PeLe 53)

Otoitza

Nigana iritsi zinen, apalki eta diskretuki,
zure adiskidetasuna eskaintzeko.

Zure mailara igo ninduzun, Zu nirera jaitsiz,
eta etxekoen arteko tratua nahian,
erabat utzi zinen.

Gure adiskidetasuna emankorra eta ugaria nahi duzu
niretzat eta besteentzat.

Jainkoa, gizakion laguna,
Kreaturon sortzaile laguna,
bekatarion lagun santua
Zu zara lagun ideala,
bere leialtasunean inoiz huts egiten ez duena
eta inoiz bere buruari uko egiten ez diona.

Sekulako adiskidantza honi,
Zuk espero eta merezi bezala erantzun nahi nuke
eta beti zure lagun gisa jokatzuz. Amen.

(Ignacio Larrañaga)

Gutuneko azken hitzak

Zaila da esatea zenbat uztartzen dituen giza gogoak gizalegez eta adeitasunez hitz egiteak. Cicerón (106 Ka-43 Ko)

2021eko otsaileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaiak arabera, hemen dauzkate otsaileko erreferentzia guztiak:

1 Mk 5,1-20	8 Mk 6, 53-56	15 Mk 8, 11-13	22 Mt 16,13-19
2 Lk 2, 22-40	9 Mk 7, 1-13	16 Mk 8,14-21	23 Mt 6,7-15
3 Mk 6,1-6	10 Mk 7, 14-23	17 Mt 6, 1-6.16-18	24 Lk 11, 29-32
4 Mk 6, 7-13	11 Mk 7, 24-30	18 Lk 9, 22-25	25 Mt 7,7-12
5 Mk 6,14-29	12 Mk 7,31-37	19 Mt 9, 14-15	26 Mt 5,20-26
6 Mk 6, 30-34	13 Mk 8, 1-10	20 Lk 5, 27-3	27 Mt 5,43-48
7 Mk 1,29-39	14 Mk 1,40-45	21 Mk 1, 12-15	28 Mk 9,2-10

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org




Asis Sarea

646 21 48 96

Otsaileko otoitza
hilaren 25ean
izango da